



GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNUA SAILA
Araubide Juridikoaren
Sailburuordetza
*Lege Garapen eta Arau Kontrolerako
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Régimen Jurídico
*Dirección de Desarrollo Legislativo y
Control Normativo*

LEGEZKOTASUN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN, BIZKAIKO
FORU ALDUNDIAREN ETA GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEAN
EUSKARAZKO HEDABIDEEN EKINTZABIDEA ZIURTATZEKO HITZARMENARI
BURUZKOA.

121/2021 LT – LGAKZ

I. AURREKARIAK

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eskaera bidali dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari, aipatutako hitzarmen proiektuari buruzko Legezketasun Txostena egin dezan.

Txosten eskaerarekin batera, honako agiriak aurkeztu dira:

- Hitzarmenaren zirriborroa.
- Erabaki proposamena.
- Euskara Sustatzeko Zuzendariaren memoria eta memoria gehigarria.
- Zerbitzu Zuzendaritzaren aholkulari juridikoaren txostena.

Txosten hau, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 14.1 a) artikuluan atxikitako eginkizunetan sustraitzen da, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoan.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03



II. HITZARMENAREN AURREKARIAK ETA XEDEA

Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko 10/1982 Legeak bere 5. artikuluan euskal herritarrei aitortzen dizkien funtsezko bost hizkuntza eskubideen artean dago informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea. Hain zuzen ere, "aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea" aipatzen du.

Legeak, halaber, erakunde bakoitzak dituen eskumenen barruan herritarrenganako hizkuntza politika aintzat har dezaten agintzen die herri administrazioei, besteak beste bizitza sozialaren alor guztietan euskararen erabilera sustatuz.

Sinatu nahi den hitzarmenaren xedea da Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) euskara hutsezko hedabideen aurrerantzeko ekintzabidea ziurtatzeko, alderdi desberdinek bere gain hartzen dituzten betebeharrak, diruzkoak zein baliabidezkoak, arautzea. Horretarako, erakunde sinatzaileek diru-hornidura orokor bat adostuko dute urtero, EAEko euskara hutsezko hedabideen dirulaguntzak bideratu ahal izateko.

2019an sinatu zen lehen aldiz lau erakundeen arteko hitzarmena, euskara hutsezko hedabideen funtzionamendua bermatzeko laguntzak koordinatzeko. Lankidetzan horren emaitzak onak izanik, lau erakundeek hitzarmena berriro izapidetzea erabaki dute.

Horretarako, erakunde sinatzaileek diru-hornidura orokor bat adostuko dute urtero EAEko euskara hutsezko hedabideen dirulaguntzak bideratu ahal izateko.

III. LEGEZKOTASUN AZTERKETA

Zerbitzu Zuzendaritzako aholkularitza juridikoak azterketa zehatza egin du hainbat kontutan: hitzarmenaren aurrekariak, izaera juridikoa; eskumena; izapidetza; edukia; edota 40/2015 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea betetzearen azterketa.

Aurreko txostenak esandakoarekin errepikapenik ez izateko, hitzarmenaren izaerari eta edukiari lotuta dauden lau ohar besterik ez ditugu garatuko txosten honetan.

Lehenik, izaera juridikoari dagokionez, hitzarmena azaroaren 8ko Sektore publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen aplikazio eremutik at gelditzen da (SPKLren 6.1 artikulua). Aurkeztutako memoria gehigarriak honela arrazoitzen du:

“Akordioaren sinatzaileek duten izaera ikusirik, hau da, herri-erakundeak izanik, ez dute merkatu-bokaziorik. Erakunde guztien helburuak kontuan, argi geratzen da, lankidetzarako akordioa dela eta ez dela zerbitzuak eskaintzeko edota eskuratzeko kontratu bat. Herri-erakunde guztiek argi ikusten dute euskarazko hedabideek, euskararen normalizazioari begira, euskal gizarteari egiten dioten ekarpena. Euskarazko hedabideek egiten duten lana interes orokorrekoa da, herritarrek informazioa euskaraz ere jasotzeko eskubidea bermatzen baitute, eta ez da entitateen beraien onura ekonomikoa lortzekoa, baizik eta irabazi asmorik gabeko helburuak erdiestekoa”.

Bigarrenik, alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoei dagokionez, hitzarmenak ez du betetzen 40/2015 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak ezarritakoa (49 d. artikulua). Nahiz eta hitzarmenak ez zehaztu erakunde bakoitzak egin behar duen diru-ekarpenaren kopurua, kopuru hori hitzarmen honen baitan sortuko den Jarraipen Batzordeak proposatuko du.

Eduki ekonomikoa argia da. Hirugarren klausulan alde guztiek bere gain hartzen dituzten betebeharrak aipatzen dira eta, horien artean, egin beharreko diru-ekarpenak.

“Hitzarmen honen baitan sortuko den Jarraipen Batzordean proposatutako diru-ekarpena egingo du.”

Beraz, idazkera kontuan hartuta, konpromiso ekonomikoa argia da eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak adierazitakoa errespetatu beharko da (49.d artikulua).

Memoria gehigarrian adierazten da hitzarmenak eduki ekonomikoa duela esatea “gehiegi” dela diru-ekarpenak proposamenak besterik ez direlako. Honela dio: *“Hitzarmenean bertan adierazten den Jarraipen Batzordeak herri erakundeei proposamena egingo die, bakoitzari dagokion aurrekontu orokorretan aurreikuspena egin dezan”.*

Baina hori ez da hitzarmenak josotzen duena. Hitzarmenaren betebeharren artean ez da aurreikuspen soila jasotzen, baizik eta egin beharreko diru-ekarpenak. Hori dela eta, helburua diru-ekarpenen proposamena edo aurreikuspena jasotzea baldin bada, horrela agertu beharko da betebeharren artean, horiek moldatuz.

Azkenik, hitzarmenaren indarraldia kontuan hartu beharko da erabaki proposamenaren izenburuan aipatutako epealdia egokitzeko.

Hau da nire txostena, zuenbidean hobe oinarritutako beste edozeinen menpe gelditzen dena.